Nahia Mujika Arratibel



B maila • **1 saria**

Nahia Mujika naiz, 2003.urtean jaioa. Lazkaoko San Benito ikastetxean 3. DBH mailan nabil, nahiz eta beasaindarra izan.

Historia hau hasiera batean hamaika orriko euskarako lan bat zen. Historia originala oso luzea zela eta, laburtu beharra izan nuen lehiaketara aurkezteko. Egia esan, gehiago gustatu zait laburpenaren emaitza historia originala baino, eta asko poztu nau lehiaketan lehenengo postua irabazteak.

Amaitzeko, historia hau bigarren gerra mundialean kokatuta dago eta nahiko gogorra da. Hala ere, espero dut zuen gustukoa izatea.

AMA BIKOITZEKO JUDUTARRA

1995, Varsovia

Amak agindu zidan hau irakurtzeko, hiltzen zenean. Hiru hilabete pasa ziren hil zenetik, eta zena zelakoa zela, prest nengoen irakurtzeko. Hori uste nuen behintzat. Gertaerek ez dute ezer aldatzen, eta berdin maite dut nire ama zena. Beno, berez nire ama ez zena. Gogorra izan arren pasarte hauek noizbehinka berriro irakurtzea gustatzen zait, azken finean izan nuen zorte ona gogoratzen dit, eta nire beste amak izan ez zuena.

1940ko Abenduak 20

Ez. Ezin dut gehiago. Jasangaitza da. Dardaraka nabil oraindik. Gorputz osoa mindua dut. Mina besterik ez dut sentitzen. Mina eta hutsa. Arramazka markak, odol jarioak, soinekoko urradura bakoitzak, atsekabea areagotzen didate. Jakin nahiko nuke zer egin dudan Yahveh, hau merezi izateko. Ez didazu erantzunik ematen, eta ez dakit zer egin, nola jokatu, nola jasan hau dena. Laguntza erregutu nizun Yahveh, eta ez didazu eman, ez didazu eman. Ezin dut gehiago, oraintxe bertan lo geratzea eta inoiz ez esnatzea besterik ez dut eskatzen. Ez dut lortuko aurrera jarraitzea. Ez naiz hain indartsua, ezta ere hain ausarta. 14 urte besterik ez ditut. Neskato judutar gajo bat besterik ez naiz, paper puska ziztrin batean idazten, bere atsekabeak, bere minak. Bista paperetik kendu eta izterretako odolera eramaten dudan bakoitzean, berriro ere momentua gogoratzen dut. Bere alemaniar azentu nazkagarri hori. Bere begiak nire aurpegitik gertu, eta bere ezpainak nireen kontra. Bere barreak, bere mugimendu bakoitza, buruan dut. Memorian, betiko. Nola kliskatu didan begia, nola galdetu didan izena, nola laztandu didan ilea, eta nola besotik tiraka eraman nauen bazter hartaraino. Nola egiten zuen barre, nola gozatzen zuen askatzeko erregutzen nion bakoitzean. Kolpeen hotsa, gure gorputzak hormaren aurka jotzen zuten bakoitzean. Bere gozamen hatsak, nire malkoekin koordinatuta. Nire bizitzako ordu luzeena, gorrotagarriena, eta zalantzarik gabe, okerrena. Bere atzamarrak indarrez sartzen zituen nire eskumuturreko haragian. Ukatzeko

saiakera bakoitzean geroz eta estuago eusten zizkidan eskumuturrak, ezertarako balio ez zuen saiakera bakoitzean. Oraindik gogoan dut dena, oraindik entzun dezaket nola hausten duen nire soinekoa indarrez. Nola laztantzen nauen, nola tratatzen nauen. Nola garbitu duen nire odola nazka aurpegiz soineko puskatuan. Nola berak askatuaz batera lurrera erori naizen. Nola janzten zen, eta nola txanpon bat bota didan, zerbitzuak eskertzeko moduan, eta nitaz barre egiteko aldi berean. Ez dut inoiz ahaztuko nola bota didan txanpona eta zer esan didan: "Ei Marian edo dena delakoa. Jakin ezazu politagoa zaudela horrela, irribarretsu." Barretxo bat askatu eta joan egiten dela ikusten dut oraindik. Txanpona begiratzen geratu naiz minutu batzuk, dardaraka, negar batean. Ezin da une horretan sentitzen nuena hitzez azaldu. Han nengoen, bakarrik, izututa. Orain ulertzen dut nola amak ukatu zuen soldadu haiek bera ukitzea. Handik atera naizenean, soldadu talde bat kanpoan zen. Eta niri hau egin didana ezikusiarena eginez eta kideak agurtuz nola joaten zen gogoan daukat oraindik. Oinez ibiltzeko gai ez nintzen, eta lurrera erortzen nintzen. Barregura ematen zien horrek. Beraiek zenbat eta ozenago barre egin, orduan eta negar gehiago egiten nuen nik. Bi gizonen laguntzaz iritsi naiz aterpera, gizonak judutarrak, noski. Denbora bat pasa ostean, emakume batek ogi puska bat utzi du erortzen ghettoaren sareen zuloetatik, soldadurik begira ez zegoenean. Horrek ez dit asko lagundu, ez bai nuen jateko inongo gogorik, azken egunenotan ez bezala. Tennembaum andereak besarkatu eta garbitu nau, eta zopa beroa eman dit gauero bezala, gaur apur bat gehiago. Orain ulertzen zaitut ene amatxo maitea, eta espero dut laster zurekin elkartzea. Eta aita gugana laster iristea. Eta zuri Yahveh maitea, jada ez dakit nola eskatu laguntza. Jakin badakizu, asko errezatu dizudala zuk niri barkatzeko eta laguntza eskaintzeko. Baina orain uste dut, zuk errezatu beharko didazula niri, nik zu barkatzeko.

Miryam

Nor zen neskato hau? Nire ama? Zergatik ez zitzaidan inoiz jakinarazi? Nire beste amari bota behar ahal diot errua? Adelari? Nori bestela? Ez ahal da gustu txarrekoa hildakootaz horrela hitz egitea? Ni babesteko egin zuten bi amek, bai Miryamek eta bai Adelak. Biek zituzten arrazoiak ni gorrotatzeko, baina bietako inork ez zuen egin.

1941eko Martxoak 2

Ikaragarria da, ikaragarria. Yahveh, txantxetan al zabiltza? Haserre al zaude nirekin idatzi nuen azken aldian esan nizunagatik? Zer gertatzen zaizu? Zergatik hau niri? Ez dut ulertzen ene zorte txarra. Amak beti esaten zuen edalontzia erdi beteta ikusi behar dela. Horrela izanda, pentsa dezaket behintzat orain emakume bati pena nahikoa ematen diodala egunero ogi puska batzuk ekartzeraino. Emakume hau zintzoa da. Ikusi ninduen unetik ohartu zen laguntza behar nuela, eta ahal duena egiten du ni gosez ez hiltzeko. Nire egoera orri zikin hauetan idazteak soilik mina ematen dit bihotzean. Dena berriz gogoratzeak, tristura eta melankolia sentiarazten dit ariman. Eta nire tripara begiratzeak, nazka sorrarazten dit gorputz osoan. Soldadu alemaniar madarikatua berriro memoriara ekartzen dit. Gertatukoa ekartzen dit berriro ere burura. Hasieran dena botagura besterik ez zen. Lehenengo hilabetean botagura besterik ez nuen, eta normalean baina gose apur bat gehiago. Bigarren hilabetean, tripa gizentzen hasi zitzaidan, eta gose handia izaten nuen. Botaka egiten nuen, astean behin, edo gehiagotan. Hirugarren hilabetean tripak gizentzen jarraitzen zuen, eta gose handia nuen, geroz eta gehiago. Tennembaum andereak oso kezkatua zirudien beti. Nik ez nuen ulertzen gertatzen zena. Izututa nengoen. Ez zitzaidan burutik pasatu antzeko ezer. Gaur goizean bertan, Tennembaum andereak, gizon batengana eraman nau. Gizon hori medikua izandakoa zen, alemaniarrek lizentzia kendu zioten arte. Izutu egin naiz, gaixotasun larriren bat edo harrapatu nuela pentsatuz. Tennembaum andereak berarekin hitz egiten amaitu ostean, errebisio bat egin dit. Asko kostatu zait gizon batek berriro ni ukitzea ametitzea. Baina hau zintzoa zen, ez zidan minik eman nahi. Aurkakoa, laguntzeko prest zegoen. Lagundu egin nahi zidan. Errebisioan zehar goibel sumatu dut gizona. Sabela asko ukitu dit eta galdera arraroak egin dizkit. Tennembaum anderea errezatzen ere ikusi dut momentu batzuetan. Amaitu duenean, arnasa sakon hartu du eta eskuak burura eraman ditu. Tennembaum andereari begiratu, eta baietz esan dio buruaz. Hau negarrez hasi da segituan, gertatutakoa sinetsi ezin zuelarik bezala. Ni asko larritu naiz eta etengabe galdetu dut ea zer gertatzen zen. Gizonak begiratu egin nau, eta honela esan dit: "

Miryam. Ez dakit nola esan. Ez dakit nola eman mezu hau xamurrago, baina, zera, Miryam; haurdun zaude." Tenneumbaum anderea oraindik sakonago hasi da negarrez, eta gizona ere negarrez hasi behar zela argi zegoen. "Sentitzen dut benetan; sentitzen dut." Blokeatuta geratu naiz. Ezustean harrapatu nau, ezin nuen erreakzionatu. Derrepente botaka egiten hasi naiz, nire okarekin batera jausten ziren negar malkoak lurrera. Gizonak zeukan diru guztia eman digu, txanpon gutxi batzuk. Eta handik joan gara Tenneumbaum anderea eta biok, negar zotinka. Soldaduak han zeuden, pasa garen lekuan. Bihotza inoiz baina bizkorrago hasi zait taupaka haiek ikustean. Hortxe zegoen, nik ezagun nuen gizona. Nik hainbeste gorroto nuen aurpegi hura. Gorputz altu eta indartsu hori, begi handi eta urdin haiek, nigandik hain gertu egon zirenak biak. Begira geratu naiz une batez. Ezin dut hitzetan azaldu momentu hartan sentitzen nuen haserrea, sentitzen nuen gorrotoa, sentitzen nuen sumina, sentitzen nuen nazka. Nazka! Eskuak eraman ditut sabelera, soinekoak ondo markatzeko nire tripa zaharra. Gizonaren irribarre aurpegia segundoan aldatu da. Soldadu guztiak begira nituen. Nire begietatik malkoak jausten ziren etengabe, eta ez diet jaramonik egin Tenneumbaum anderearen joateko aginduei. Soldaduaren begiradan eta hitz guztietan amorrua sumatzen nuen. Harridura, agian. Ez dakit; berdin dit. Besteak barreka zituen inguruan, barrez lehertuaz zeuden denak. Nola ez ba? Oso barregarria da soldadu ergel eta gizajo bat ume judutar nazkagarri baten aita izatea. Oso, oso, barregarria, benetan. Soldaduari begira begira nago, begirada intentsu batekin. Berak ere begiratzen nau, baina oraingo honetan ez du irribarre egiten, ez du txanponik botatzen. Koldar halakoa, handik joan da, beste guztiak txaloka eta barreka zeuden bitartean. Jende guztia begira nuen. Azkeneko aldian bezala. Inoiz ez naiz horrela sentitu. Ausarta eta iraindua aldi berean, indartsua eta inoiz baina ahulago aldi berean. Inoiz ez nau hainbeste poztu pertsona bat haserre, triste eta amorratuta ikusteak; pertsona bat dela esan badaiteke. Oraingoan Tenneumbaum anderearen joateko aginduari jaramon egin diot. Aterpera iritsi eta gutxira, egunero ogia ematen didan emakumea pasa da. Ogia disimuluz bota du, eta nik inor begira ez zegoenean hartu dut. Ez da ohartu nire egoeraz. Gero etxera sartzen ikusi dut, begiratu egin dit, baina ahala ere ez du sumatu nire sabel puztua. Eta orain hemen nago, gizon nazkagarri horren umea noiz jaio zain. Orain itxarotea besterik ez dut, eta denengatik errezatzea. Mesedez, zugan konfitatzen dut Yahveh. Errezatuko dizut zuk ni barkatzeko eta zuk zure laguntza eskaintzeko. Lagundu mesedez,

Miryam.

Krudelak ziren. Krudelak eta nazkagarriak. Neskato bat aurdun utzi eta kezkatzen zaituen bakarra, zure haurra judutarra dela da? Nola izan daiteke horrelakoa jendea? Zer pasatzen zaie burutik horrelakoak egiteko? Zer gertatuko litzaidake niri nire amak horrelakoak izan balira nirekin? Seguruen aspaldi hila izango nintzela. Eskerrak denak ez diren mundu honetan arrazistak, edo ez dakit zer izango zen nitaz.

1941eko Irailak 3

Neska da, neska polit bat. Txiki txikia da, eta orain dela gutxi hartu du lo, bere amaren besoetan; nire besoetan. Pasa dudan min guztiak merezi izan du. Ikusi izan ditut zortzi seme alabadun amak. Nik bakarrik dakit ez nintzela gauza izango zortzi seme alaba erditzeko. Ez orain behintzat. Begira-begira nago nire alabatxoari. Askotan entzun izan dut, "amaren begiak ditu" edo antzeko esaldiak ume bat jaiotzerakoan. Nik aldiz, ez diot inoren antza sumatzen. Bakarra da, ez du inoren antzik, zoragarria da izatez, ez beste baten begiak edo irribarrea dituelako. Ursula du izena, bere amona bezala. Ursula Deuslogar, bere aitona bezala. Bederatzi hilabete hauetan ez nuen ezer jakin nahi nire alabaz. Gorroto handia niola esan daiteke. Soldadu alemaniarrarekin erlazionatzen nuen. Pentsatze hutsak gizaseme haren haur bat izango nuela, gorrotoa zabaltzen zidan gorputz osoan zehar. Ez nuen nahi. Ezin nuen ideia jasan. Jaio baina lehenagotik gorrotatzen nuen neskato hori, ezagutu baina lehenagotik nion nazka. Erditzerako garaian, hantxe hilko nintzela uste nuen; ez nintzela bizirik aterako. Dena amaitutakoan, eta negar hots hura entzuterakoan, bederatzi hilabete hauetan ez bezala, nire haurra besoetan eduki nahi nuen. Ez naute atsekabetu bere negar hotsek, ez naute zapuztu. Alderantziz, bihotza samurtu didate, eta lehenengo aldiz, irribarre bat atera dit ama nintzela jakiteak. Erditu duen inork ez daki zein zoragarria den zure haurra besotan hartzea, tortura latz baten ondoren. Nire alaba besotan hartu dudan unean ulertu dut, ez dudala gorroto, maite

dudala. Bere ama naiz, ama batek ezin du bere alaba gorrotatu bere aita den bezalakoa delako. Ama batek ezin du bere alaba gorrotatu munduko ezergatik. Nik badakit zer den gorrotatua izatea, inork baino hobeto. Nik badakit zer gauza egin ditzakeen jendeak gorroto hutsagatik. Bai, nire alaba alemaniarra da, judutarra den bezalaxe. Eta zer? Horregatik ezin al dut maite? Horregatik gorrotatu behar al dut? Begietara begiratu diodan lehenengo momentutik jakin dut, ez diodala inori nire alabari minik egiten utziko. Babestu egingo dudala nire indar guztiekin, lagundu egingo diodala nire borondate guztiarekin, maitatu egingo dudala nire bihotz guztiarekin; alemaniarra zein judutarra izan. Azken finean, hori da ama batek egin behar duena, bere haurra maitatu, edozein aitzakiarik gabe. Nire gurasoek azkeneko momenturaino babestu ninduten, eta ez dut gutxiago egitea pentsatzen. Ursula, orain badakizu, betiko izango duzula maitatuko eta babestuko zaituen ama bat; inoiz gorrotatuko ez zaituena hemendik aurrera. Zugatik errezatuko duena. Ez dut utziko zuk ni bezala amaitzen, munduko ezergatik ez. Mesedez, zugan dut itxaropena Yahveh. Zuk guri barkatzeko eta zuk zure laguntza eskaintzeko errezatuko dizut. Lagun gaitzazu mesedez,

Miryam.

Nire amak maite ninduen. Asko eskertzen diot, eta seguru berak bazekiela hori. Jende askok bortxaketa baten ondorioz haur bat izaten duenean, gorrotatu egiten du bere seme edo alaba. Ez dute maite, ezin dute maite. Horregatik eskertzen dut nire ama hain ausarta eta eskuzabala izatea. Berak ez ninduen epaitu, berak ez ninduen gorrotatu eta ez zidan gertatua leporatu. Bere buruari gogorarazi zion, nik ez nuela errurik, nik ez niola ezer egin, eta nik ez nuela errurik nire aitak egindakoengatik. Berak maite ninduen, eta ez zion inori utzi niri minik ematen. Oso ausarta eta eskuzabala da, neskato bortxatu baten aldetik, eta ez daki zenbat eskertzen diodan; beno seguruenik bazekiela.

Ursula maitea

Zure ama naiz, Adela; Adela Bosko. Hau irakurtzen hari bazara, ez da oso seinale ona, zure bi amak galdu dituzun seinale da. Bi amak? Nola? Badakit ez duzula ezer ulertzen, Ursula. Eta, bada garaia gauza bat jakin dezazun, horregatik eskatzen dizut, zure pazientzia eta adore osoz hau irakurtzea, eta bizi izan nintzen denboran hau esateko adorea izan ez nuen arren, oraingoan entzutea. Ursula, zure aita alemaniarra zen, beti esan nizun bezala. Baina, zure ama, zuk hori pentsatu arren, ez zen poloniarra. Ez Ursula, ni poloniarra naiz. Zer esan nahi duen horrek; ba ez naizela zure ama biologikoa. Mesedez, ezer baina lehenago, segitu irakurtzen, eta ez geratu amaitu arte. Goizero joan ohi nintzen ghettora. Ghettoa, Varsovian judutarrak eramaten zituzten lekua zen, han bizitzeko, badakizu. Etxetik oso gertu zegoen, eta egunero pasatzen nintzen handik, nahi eta nahi ez. Sare batez inguratuta zegoen eta inork ezin zuen handik atera, soldadu naziz beteta zegoen. Goiz batean neska gazte bat ikusi nuen, odoletan, bakarrik, negarrez. Bere egoera negargarria ikuste hutsarekin jakin nuen bortxatu egin zutela. Soldadurik gertu ez zegoela egiaztatzean, sarera urbildu nintzen, ogi puska handi bat bota nuen sareen zuloetatik, eta segituan alde egin nuen inork ikusi baina lehen, ezer gertatu ez balitz bezala. Bera ohartu zen, eta disimulu handiz hartu zuen. Goiz hartatik geroztik egunero ogia pasatzen nion, batzuetan egunean bitan, ordu berdinetan beti, leku berdinean. Ez genion elkarri hitzik egiten, ez genion elkar begiratzen, ezin genuen. Ez dakit zergatik, baina txoko hartan ez zegoen ia inoiz soldadurik, eta baldin bazeuden, ez ziren ohartzen, leku zehatz horrek kezkatuko ez balitu bezala zen. Gau batean, erre usaina sumatu nuen, leihora atera nintzen, eta; ghettoa erretzen hari ziren. Judutar asko oihuka hari ziren, ghettotik ateratzea lortzen zuten gutxik, kiskaltzen ez ziren gutxi horiek, segituan arrapatzen zituzten soldadu naziek. Negarrez hasi nintzen, izugarria zen. Bakarrik nengoen; badakizu nire senarra hila zela aspalditik. Halako batean, atea jo zuten. Beldurtuta jaitsi nintzen atea zabaltzera. Ireki nuenean, lurrean, haurtxo bat zegoen saski batean. Aste gutxiko neskatila txiki bat zen. Negar batean hari zen eta saskian bertan ohartxo batzuk ere bazeuden. Honela zioen:

'Kaixo, Miryam naiz. Zure ogia egunero jaten duen neskatoa. Soldadu horren bortxaketak bere fruitua eman zuen, zure aurrean duzuna. Badakit ezin duzula 15 urteko neska judu baten kargu hartu, baina bi aste eta erdiko haurtxo batena... Mesedez, nik ezin dut gehiago zaindu, nirekin

badator, hil egingo da. Zure ogiak behin salbatu zituen haurtxo hau eta bere ama, mesedez, oraingo honetan zure borondateak salba dezala haurtxo hau behintzat. Ursula du izena, bere amona zena bezala. Hurrengo paperetan bakarrik eta hutsik sentitzen nintzeneko idatzi batzuk dituzu. Nire aita zenak zionez, ez dago idaztea bezalakorik arima berriro berpizteko eta barneko armonia berriro lortzeko. Noizbait aukeratzen baduzu Ursulari egia kontatzea, jakin dezala nor izan zen bere ama. Mila esker zure laguntzagatik; Miryam.'

Seguruenik izkinen batetik begira nuela, baina ez nuen ikusi. Haurtxoa hartu, eta etxera sartu ginen biok. Ezkutuan eduki nuen, gerra amaitu bitartean. Zure ama oso indartsua izan zen Ursula, eta orain berdina eskatzen dizut zuri. Zure amak ez zintuen epaitu, eta horregatik zaude hemen; hortaz ez nazazu ni epaitu, eta maitatu nazazu, zure amak zurekin egin zuen bezala.

Zure ama ordea,

Adela Bosko

Hori zen aspalditik idatzita eta niretzat gordeta zuen oharra. Ikaragarria da nola paper puska batek gauzak asko alda ditzakeen une batetik bestera. Zer esan nahi du ohar horrek, nire ama ez zela nire ama? Ez. Nire amak nire ama izaten jarraitzen du, norbaiten alaba izateko ez zaitu zertan pertsona horrek erditu. Kontua maitasunean dago, bi pertsona horiek elkarri dioten maitasunean. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi erditu nauen emakumeak nire ama izateari uzten dionik. Ez du esan nahi, nigatik bizitza eta gehiago eman zuen neskatoak nire ama izateari uzten dionik. Biak dira nire amak, eta biak maite ditut, nahiz eta oso modu ezberdinean izan, beraiek ni maite izan ninduten bezala.